

**IKASTETXE GUZTIENDAKO JARDUERA KOMUNA. 2011KO MARTXOAN EGITEKOA.  
 JARDUERA MOTA: IKERKETA LANA + IKASTETXEETAN AZALPENA  
 JARDUERAREN EDUKIA: AUTONOMIA ETA ENPLEGUAREN ZENTRALITATEA**

<b>IKASTETXEA</b>	URDAZUBI-ZUGARRAMURDI ETA BAZTANGO HERRIETAKO ESKOLAK
<b>HERRIA</b>	Urdazubi, Zugarramurdi, Amaiur, Azpilkueta, Erratzu, Arizkun, Gartzain, Irurita, Ziga, Almandoz, Arraioz eta Oronoz.

## 1. JARDUERAREN PROGRAMAZIOA

Bete eta igorri Berdintasunerako Bulegora, MARTXOAREN 1a baino lehen

<b>IZENBURUA/GAIA ETA JARDUERAREN DESKRIBAPENA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- <u>GAIA</u>: EMAKUME LANGILEAREN EGOERA: MARTXOAK, 8.</li> <li>- <u>JARDUERAK</u>: AZALPEN TESTUAREN LANKETA GAITASUN EZBERDINAK JORRATUZ, BIDEOA BEHATUZ ONDORIOAK ATERA, PANKARTA EDO HORMIRUDIA PLAZARATZEA...</li> </ul>
<b>HELBURUAK IKUSPEGIA/TRANSMITITU NAHI DIREN IDEIAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- MARTXOAK, 8 EGUNAREN ZERGATIAZ JABETZEA.</li> <li>- EMAKUMEAREN EGOERA/ PRESENTZIAZ OHARTZEA LANBIDE MUNDUAN</li> <li>- ESTEREOTIPOAK HAUSTEA.</li> </ul>
<b>PARTE-HARTZAILEAK: IRAKASLEAK, IKASLEAK, FAMILIAK...</b>	IRAKASLEGOA, IKASLEGOA, FAMILIAK, HERRIA.
<b>BALIABIDEAK, MATERIALAK... ARGAZKIAK, OBJEKTUAK, ELKARRIZKETAK...</b>	INTERNETETIK EGOKITU ETA SORTUTAKO AZALPEN TESTUAK, STEE-EILASEKO JARDUEREN KARPETA, EREDUTZAT HARTZEN DITUGUN EMAKUME EZBERDINEN ELKARRIZKETAK, ETXETIK EKARRITAKO INFORMAZIOA, ARGAZKIAK...

## 2. JARDUERAREN LABURPENA

Bete eta igorri Berdintasunerako Bulegora, APIRILAREN 8a baino lehen

<b>EGINDAKO JARDUERAREN DESKRIBAPEN LABURRA (argazkiak, irudiak... ere sartu)</b>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1.- Bideoak ikusi gaiaren aurkezpen modua. Eskola bakoitzak bere lana egin du afera honetan.</li> <li>2.- Argibideak/Informazioa bilketa. Horretarako hainbat bide erabili izan ditugu: etxerako/familiendako oharrak, internet, eskolako liburutegiak,...</li> <li>3.- Ekarritako/bildutako materialaren azterketa eta balio duena gurera ekarri. Eskola batzuetan andreen txokoa prestatu dute material guzi hau biltzeko/erakusteko asmoekin.</li> <li>4.-Idatzizko testuaren lanketa eta ekoizpena. Testu formatu desberdinak landu izan ditugu : azalpen testuak, kazetaritza testuak, etab,. Ikastalde bakoitzak indartzeko behar zuenaren arabera.</li> <li>5.-Datuak landu. Informazio batzuekin lanketa hau egitea interesgarria zela ikusten genuen : kronologikoki kokatu, konparaketan egin,...</li> <li>6.-Lan guziaren sozializazioa/kanporatzea. Ormirudiak geletan/eskoletan paratu, eskolako aldizkarian argitaratu, etab. Eskola bakoitzak bere lanak sozializatzeko modua dauka. (azkeneko fase honetan gaude oraindik).</li> </ol>
---	---

<b>BOST ESALDI EDO TITULAR, EMAITZAK ETA ONDORIOAK LABURTZEKO</b>	<b>Elkar erantzukizuna</b>
	<b>Arduretan ere berdintasuna</b>
	<b>Lanbideek ez dute generorik</b>
	<b>Kirolek ez dute generorik</b>
	<b>Ez badugu konpartitzen nerea eta zurea egin beharko ditut</b>
<b>OHARRAK, IRITZIAK, BALORAZIOAK...</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Sortatuko materiala oraindik ekoizten ari gara, beraz ezin ditugu adibideak igorri eta mamorian sartuko ditugu.</li> <li>- Programatutako gehiena egin badugu ere ez dugu astirik izan martxoan dena burutzeko. Hainbat geletan hiruhile osoa erabiliko dute programatutakoa egiteko.</li> </ul>